

Kulturaren Euskal Kontseilua - Consejo Vasco de Cultura  
KULTURAREN EUSKAL PLANA - PLAN VASCO DE CULTURA  
Ikerketak - Estudios


## **Euskal Kultur Ondarea digitalizatzeko, babesteko eta zabaltzeko Plan Zuzentzailea**

Kulturaren Euskal Kontseilurako Ibermatikak egindako azterketa

2005eko Azaroa



# 1. Sarrera



*Euskal Kultur Ondarea digitalizatzeko, zaintzeko eta babesteko Plan Zuzentzailearen definizioa txosten honek izen hau duen jardueraren emaitzak jasotzen ditu.*

Jarduera honetan lan Zuzentzailea osatzen duten helburuak, jarduera-ildoak eta proiektuak bildu eta garatu dira.

**Garapenaren metodologia izeneko 3. kapitulu**an bai jarraitutako eskema eta garapenaren iturriak, bai planaren osagaiak erakusten dira.

**Helburu estrategikoak eta Jarduera-ildoak izeneko 4. eta 5. kapitulu**etan egindako analisiaren arabera proposatzen diren helburuak eta Eusko Jaurlaritzak helburu hauek betetzeko martxan jarri behar izango lituzkeen jardura-ildoak aurkezten dira.

**6. kapitulu**an Plan Zuzentzaile barruan dauden proiektuen inbentarioa biltzen da.

Bukatzeko, **I. eta II. eranskin**etan planaren irteeren xehetasunak eta hasierako proiektuak biltzen dira.

*Ibermática*  
Tecnología y Conocimiento



**Euskal Kultur Ondarea  
digitalizatzeko, babesteko eta  
zabaltzeko Plan Zuzentzailea**

*Vitoria/Gasteiz, 2005eko urriaren 9a*



## Aurkibidea

1. Sarrera
2. Plan-eremua
3. Garapenaren metodologia
4. Helburu estrategikoak
5. Jarduera-ildoak
  - Inbentarioa
  - Deskribapena
  - Ildo-helburuen matrizea
  - Identifikatutako proiektuak
6. Plan Zuzentzailea
  - Sarrera
  - Proiektuen fitxak
  - Egutegia


I Eranskina. Hasierako iritziak

II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna



## 2. Plan-eremua


Plan Zuzentzailearen barruan epe motzera edo ertainera (2005 – 2009) sortu behar diren proiektuak eta programak daude, 1. fasean egindako ikerlanaren ondorioetatik ateratako beharrei erantzuna emateko. Hau guztia lortzeko jarduera-ildo batzuk martxan jarri dira, esate baterako Eusko Jaurlaritzak abian jarri behar izango dituen mekanismoak definitutako helburu estrategikoak eskuratzeko asmoz.




Dokumentu honek duen izaera berritzailea berriro gogorarazteak garrantzi handia du, mundu osoan zehar oso herri gutxi esparru publikotik ondare digitalaren gaiari ekin diotelako, oso gai zabala eta korapilatsua da eta.

### 3. Garapenaren metodologia

Plan Zuzentzaile honen antolakuntza hurrengo irudian azaltzen den metodologian oinarritzen da. Ikusten den bezala, metodologia hori gaur egungo egoeraren ikerlanetik jaio eta proiektu konkretuetan bukatzen da.



### 3. Garapenaren metodologia




Plan Zuzentzaile hau sortzeko Kulturaren Euskal Planaren emaitzak kontuan hartu dira, batez ere ondare digitalaren barruan lan egiten dutenenak: museoak, liburutegiak eta artxiboak eta industria kulturalen barruan kultura digitala.

“Kultura digitala” izan da lan-taldeetan sartutako zehar-gai bakarra, esperientziak pilatzeko eta egiaztatzeko beharragatik oso gai berria izateaz gain, bere eragina kulturaren sistema guztietan oso nabarmena izango baita. Izan ere, era adierazgarri desberdinak (idatziak, audio, grafikoak, ikusmenak, multimedia) elkartzen dituen gai generikoa da. Gainera, euskal ondare kulturala digitalizatzeko, zaintzeko eta babesteko Plan Zuzentzailean agertzen diren beste azpilanetan ere aurki dezakegu gai hau.

### 3. Garapenaren metodologia

Helburuen geroko garapenean ikusten den bezala, orain arte aipatu ez den alderdi bat dago: ondare digitalaren prozesuaren zatiketa azpiprozesuan edo ekintzetan. Esan behar dugu alderdi honek **ondare digitalarekin lotuta dagoen edozein ekimen** egituratzeko eta antolatzeko oso garrantzi handia duela.

Prozesu hau hurrengo eskema grafikoan irudika daiteke. Irudi hau sortzeko Minerva proiektuan inspiratu da, Europako Ondare Digitalari buruzko proiektu burua eta koordinatzailea delako.




Irudi hau prozesuaren ikuspuntu orokorra izan dezagun oso garrantzitsua da eta edozein ekimen multzo hauetariko baten edo bestean kokatu behar da.



### 3. Garapenaren metodologia

Dokumentu honetan agertzen diren kontzeptu batzuei buruzko argibideak:


- Elementu **digitalizatua** = Jatorriz formatu digitala ez duten elementuak, baina formatu digitalean erreproduzitzen direnak = Mota A.
- **Jatorri digitaleko** elementua = Jatorriz formatu digitala duten elementuak = Mota B.
- Elementu **digitala** = A + B = formatu digitalean aurkitzen den edozein elementu; berdin da zein den elementu horren jatorrizko formatua.






## 4. Helburu estrategikoak

Prozesuaren irudi global honek Plan Zuzentzaileak digitalizazio fasean ez ezik, ondare digitala osatzen duten beste fasetan ere arreta jarriko duela esan nahi du. Horrela, digitalizazio, zaintze eta babesaren artean dauden koordinazioa eta osaketa onartzeaz gain, sortuko diren aktiboen erabilera haien zabalkundearen oinarrituko da.

Honen arabera, Eusko Jaurlaritzak Plan Zuzentzaile honetan markatu behar duen helmuga hurrengo hiru helburuetan edo ardatz estrategikoetan laburtzen da:



-  Kultur ondare digitalaren garapena bultzatzea
-  Ondare digitalaren babesa finkatzea
-  Ondare digitalaren zabalkundea erraztea

## 5. Jarduera-ildoak Inbentarioa

Helburuak lortzeko, Eusko Jaurlaritzak honako **jarduera-ildo** hauek martxan jarri behar ditu:

J - 1

EAEko ondare digitalaren eremuan, jardueren **koordinazioa** eta egitea bultzatzea, horretarako beharrezkoak diren erabaki-, kudeaketa- eta informazio- mekanismoak sortuz eta sustatuz.

J - 2

Administrazio publikoek ondare digitalaren babesaren eta sarreraren eremuan burutu behar dituzten **ereduak eta lanak** definitzea.

J - 3

Ondare digitalaren eremuan eredutzat hartu beharreko **ildoak**, estandarrak, iritziak eta gomendio teknikoak egokitzea, burutzea eta sortzea.

J - 4

Euskal **ondare digitala** bultzatzea, interes handiko aktibo unibertsal bezala.

J - 5

Euskal ondare kulturala formatu digitalean sormena **bultzatzea**, eremu desberdinetan.

J - 6

Euskal ondare digitalaren **zabalkundea** bultzatzea, bai EAE barruan, bai EAetik kanpo, barruko lotura eta kanpoko sustapena lortzeko.

J - 7

Ondare digitalaren erakunde gestoreei beraien lana betetzeko behar duten **prestakuntza** eta laguntza teknikoa erraztea.

J - 8

Ondare digitalaren eremuan **inguru legala** eta bere ezarpenerako beharrezkoak diren oinarriak bultzatzea.

## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 1. JARDUERA-ILDOA

**EAEko ondare digitalaren eremuan jardueraren koordinazioa eta egitea bultzatzea, horretarako beharrezkoak diren erabaki-, kudeaketa- eta informazio- mekanismoak sortuz eta sustatuz**

Jarduera honen helburua erakundeen arteko lankidetzarako eremu bat sortzea da. Alde batetik, Plan Zuzentzailea gauzatzeaz arduratuko da; bestaldetik, ondare digitalaren jabetze, babes eta zabalkunde kulturalarekin zerikusia duten erakunde publiko eta pribatuaren arteko lankidetzara bultzatuko du.

Beharrak aurkitu eta herrialde askotako ereduak ikasi ondoren, eman behar den lehenengo urratsa honako hau da: berriazko erakunde batzuei (bai berriei, bai existitzen direnei) beharrezkoak diren ekintzen eta errekurtsoen kudeaketa eta koordinazioa eman behar zaizkie. Gainera, unibertso digitala osatzen duten kideek haien artean komunikatzeko baliabideak eta plataforma konkretuak bultzatuko dira.

EAEko 90ko hamarkadatik ekimenak gertatu dira eremu digitalean, abiadura eta ezagupenak oso desberdinak izan arren. Horrela, eskarmentu handiko erakundeak aurki ditzakegu, eta horren ondorioz formatu digitalean informazioa ugari gordetzen dutenak. Baina, hau gertatzen den bitartean, beste erakunde batzuk ez dira oraindik arlo honetan lan egiten hasi. Teknologiari dagokionez, desberdintasunak ere badaude: erakunde batzuek kudeaketa digitalarekin erlazionatuta dauden teknologia aurreratuak erabiltzen dituzten artean, beste batzuek oinarrikoak ere ez dituzte ezagutzen. Halaber, ohikoa da erakunde desberdinek arazo berberekin aurkitzea eta batzuetan, arazo horiei aurre egiteko, jadanik existitzen den konponbidea berriro asmatu behar dute, errekurtsoak kontsumituz.



## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena

#### 1. JARDUERA-ILDOA (jarr.)

**EAEko ondare digitalaren eremuan jardueraren koordinazioa eta egitea bultzatzea, horretarako beharrezkoak diren erabaki-, kudeaketa- eta informazio- mekanismoak sortuz eta sustatuz**

Bestalde, organo teknikoak sortzeko premia nabaria da. Organo hauek osatzeko eremu digitalean haien lanetatik ezagunak diren profesionalak hartuko dira. Adituen batzar hauen helburuak oso desberdinak izango dira: batzuek informazioa trukatzeko eta eztabaidatzeko foro bat antolatuko duten bitartean, beste batzuek eredutzat hartuko diren dokumentuak garatu eta gainbegiratuko dituzte. Dena dela, batzar guztien ezaugarriak honako hauek izango dira: objektibitatea eta iraunkortasuna. Hasieran proposatzen diren gaiak hauek dira:

- Digitalizazioa (nahiz jatorrizko testuak, nahiz soinudunak, grafikoak edo ikus-entzunezkoak)
- Katalogazio digitala
- Jatorri digitaleko aktiboen eta erregistroen kudeaketa
- Zaintze eta babes digitala eta sartzeko bideak
- Zabalkundea-Internet, ondare digitala erabilia

## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 2. JARDUERA-ILDOA

**Administrazio publikoek ondare digitalaren babesaren eta sarreraren eremuan burutu behar dituzten ereduak eta lanak definitzea**

Dudarik gabe, unibertso digitaleko agenteentzat alderdirik larrienetariko bat babesa da. Gainera, hauen aburuz Administrazio Publikoak arazo horretaz arduratu behar du.

Dena dela, digitalizazio- eta babes-eremuan babesa ez ezik, beste eginkizun batzuk ere badaude eta normalean eginkizun hauek aktiboak dituzten erakundeak onartzen dituzte, baina errekurtsio ekonomiko, tekniko eta material asko behar dituzte, baita ezagupen espezifikoak ere. Hau dela eta, kasurik onenean, aipatutako ekintzak azpikontratatzeko dituzte, baina beste batzuetan, errekurtsioen ezagatik, eginkizunak haien gauzatzen dituzte eta egoera ezagutu gabe erabakiak hartzen dituzte. Unibertso digitaleko gestore asko egoeraz kontzienteak dira. Horren ondorioz, eskakizun batzuk egin dituzte; adibidez, lan bereziak egiteko eta aldi berean errekurtsio ekonomikoak aurrezteko erakunde zentral bat sortzea eskatu dute.

Eskakizun hau lehenago beste herrialde batzuetan jaso da eta Ondare Digitalaren digitalizazio-, kudeaketa- eta babes-prozesuan ekintzak burutzeaz gain, eginkizun batzuk (jatorrizkoak manipulatu eta digitalizatu, kalitate-kontrola, zaintzea, babesa eta abar) onartzen dituzten erakundeak agertzeko bidea eman du.

Horregatik, ekintza eta eginkizun hauek kasu bakoitzari dagozkion eredu antolatzaile, erabilgarri eta teknologikoetan oinarrituta definitu eta ezarri behar dira.



## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena

### 3. JARDUERA-ILDOA

**Ondare digitalaren eremuan eredutzat hartu beharreko ildoak, estandarrak, iritziak eta gomendio teknikoak egokitzea, burutzea eta sortzea**

Ondare digitalaren eremuan eredutzat hartzeko ildoak, estandarrak, iritziak eta gomendio teknikoak izatea da gehien eskatzen den beharretako bat bai EAEn, bai mundu osoan.

Honek alde on batzuk daramatza. Alde batetik, erakunde gestoreei lana eta erabakiak hartzea errazteaz gain, gai honetan kudeaketa-kalitatea bermatzen die. Bestaldetik, gizarteak ere onura ateratzen du iritziak homogeneizatzen direnez gero, erabiltzeko eta zabaltzeko sinplifikazioa lortzen da.

Arauen betetzeko gradua ere aztertzea beharrezkoa izango da. Halaber, gizartearen papera, batez ere, gizarte osoarekin zerikusia dutenen kasuetan, adibidez kultur ondare web-ari dagokiona.

Normalizazioa edo iritziak eta ildoak ezartzea digitalizazio- eta babes-prozesuaren eremu desberdinetan sor daitezke. Esate baterako:

- Digitalizazio-prozesu normalizatua garatzeko arauak (laguntzak, zerbitzu publikoak... lortzeko).
- Digitalizatu edo babestu behar diren aktiboak aukeratzeko irizpideak.
- Digitalizazio-estandar teknikoak (objektu digitalak sortzea, bai jatorrizkoak, bai kopiak).
- Katalogazio digitalerako irizpideen normalizazioa.
- Kalitate-kontrol digitalari buruzko irizpideak.
- Ondare digitala babesteko arauak eta politikak.
- Interneten eta beste leku batzuetan ondare digitala babesteko arauak eta politikak.

## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 3. JARDUERA-ILDOA (jarr.)

**Ondare digitalaren eremuan eredutzat hartu beharreko ildoak, estandarrak, iritziak eta gomendio teknikoak egokitzea, burutzea eta sortzea**

Ondare digitalaren kudeaketa oso alderdi garrantzitsua da, batez ere zerikusia duten errekurtsu publikoen kudeaketa, kudeatu behar den ondare digitala osatzen duten aktiboen aukeraketa da. Errekurtsuak mugatuak dira, baina objektuak infinituak dira. Horregatik, erabakiak hartzeko kontuan hartu behar diren aldeak argi eta garbi ezartzea oso inportantea da. Horretarako ildo batzuk sortuko dira. Mundu mailan aplikatzen ari diren irizpideak (IFLak sortutako digitalizaio-gidan eta beste gobernu batzuen ildoetan oinarrituta) jarraituz, ondoren aktiboei lehentasuna emateko ezaugarri batzuk aurki ditzakegu:

- 1. Haien ondarezko balioagatik:** nahiko antzinatasuna duen guztia, baina euskarria kontuan hartu behar da lehenengo eskuizkribuaren antzinatasuna eta lehenengo web-orriarena gauza bera ez da eta. Galzorian dauden elementuei lehentasuna eman behar zaie.
- 2. Haien kultura-balioagatik:** euskal kulturaren irudia den guztia eta gainera kultura-balio iraunkorra duena: guztientzako edo batzuentzako interes historikoa, hezigarria, estetikoa, arkeologikoa, zientifikoa, etnografikoa edo antropologikoa, euskaraz sortutakoak, ezaguna diren euskaldunek sortutakoak, euskal erakundeek (hemengoek edo kanpokoek) sortutakoak eta abar.
- 3. Haien gizarteko balioagatik:** eskatutakoa den guztiari lehentasuna ematen zaio, batez ere eduki hezigarriak badira.
- 4. Aplikatu behar diren arauengatik:** derrigorrezko arauak jarraitu behar dituzten elementuei lehentasuna eman eta aktibo bakoitzaren legezko ondorioak balioztatu.
- 5. Beste alderdi batzuegatik:** aktiboari buruzko informazio ugari izatea (informazio hau katalogatzeko beharrezkoa da), adituen gomendioak, kostua, beste aktiboekin duen osagarritasuna, euskarria eta abar.





## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 4. JARDUERA-ILDOA

#### Euskal ondare digitala bultzatzea, interes handiko aktibo unibertsal bezala

Jarduera honen helburu orokorra euskal ondare digitalak arlo eta jatorri (digitala eta ez digitala) desberdinetan dituen aberastasuna eta zabaltasuna zabaltzea da.

Jatorri digitala ez duten edukiei dagokie, helbururik zuzenatariko eta konkretuenatariko bat digitalizazio-ekimen garrantzitsuak gauzaten ari diren erakundeei dirulaguntzak ematea da, lan hau modu eraginkor, normalizatu eta azkarragoan egin dezaten. Hemen, nazioarteko eremuan hasitako digitalizaio-programa nabarmen batzuk kokatzen dira.

Lehentasunezko aktibo hauen artean hurrengoak aurkitzen ditugu: euskal gaiei buruzko antzinako prentsa (edozein hizkuntzatan), lehenengo testuak euskaraz, mundu osoan zehar ezagutzen diren bilduma bibliografikoak, dokumentu musikalak eta ikus-entzunezko bakarrak, dokumentu administratibo historikoak, argazkiak eta abar.



## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 5. JARDUERA-ILDOA

#### Formatu digitaleko euskal ondare kulturalaren sormena bultzatzea, eremu desberdinetan

Jarduera honen funtsezko helburua da: euskal ekoizpen kulturalak formatu digitalean sustatzea eta bultzatzea, batez ere bi arlotan enfasi berezia jarritz: berrikuntza kulturala eta ekoizpen kulturalen euskararen agerpena.

Alderdi honek garrantzia du laguntza gutxi jasotzen duten interes komertzial txikiko sormen abanguardistekin zerikusia baitu. Hala eta guztiz ere, halako lanek etorkizuneko ondare digitalaren oinarriak ezartzen dituzte eta noski, euskal kultura ezin da arazo honen kanpo geratu. Horrela, ildo hau sormena sustatzen eta horretarako foroak zabaltzen saiatuko da.



## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 6. JARDUERA-ILDOA

**Euskal ondare digitalaren zabalkundea bultzatzea, bai EAE barruan, bai EAetik kanpo, barruko lotura eta kanpoko sustapena lortzeko**

Formatu digitalaren onuraren bat euskarri horretan sortutako edo kopiatutako edukien zabalkunderako duen ahalmena da. Ahalmen hau ondare digitalean sartzea erraza izan dadila aprobetxatu behar da.

Kulturaren Euskal Planaren barruan jaso ziren bi helburu (8. eta 10. ildo estrategikoak) dira jarduera honen helburuak. Lehenengoak euskaldun eta diasporaren arteko kohesio-beharrean, gure ondare digitalaren barruko zabalkundearen eta gure herentzia kulturean jartzen du arreta. Bigarrena euskal idiosinkrasiaren kanpoko zabalkundearen eta gure lurraldeko aberastasun kulturean oinarritzen da.

Informazio eta telekomunikazio teknologien garapenak helmuga hau errazten du, Interneten bidez komunikatzeko nazioarteko plataforma bat eskainiz. Zalantzarik gabe, hau aprobetxatu behar dugu.



## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena



#### 7. JARDUERA-ILDOA

**Ondare digitalaren erakunde gestoreei beraien lana betetzeko behar duten prestakuntza eta laguntza teknikoa erraztea**

Iritzi, arau eta estandarrekin lotuta, baina eraginkorragoa, ondare digitaleko profesionalen prestakuntza aurkitzen da. Profesional hauek, oso epe laburrean, digitalizazioarekin lotuta dauden teknologiek haien lana betetzeko gero eta garrantzi handiagoa dutela ikusi dute.

Hori dela eta, eskakizun hauek zehaztea eta erakundeetatik eskakizun hauei erantzuna koordinatzea eta antolatzea pentsatu da. Gainera, profesional guztiei prestakuntza jarraitzeko aukera emateaz gain, sektore honetako langileen ahalmena hobetu behar du.

Prestakuntza honen gaiak eta 3. jardueran aipatutakoak antzekoak izan litezke:

- Digitalizazio-prozesu normalizatua garatzeko arauak (laguntzak, zerbitzu publikoak... lortzeko).
- Digitalizatu edo babestu behar diren aktiboak aukeratzeko irizpideak.
- Digitalizazio-estandar teknikoak (objektu digitalak sortzea, bai jatorrizkoak, bai kopiak).
- Katalogazio digitalerako irizpideen normalizazioa.
- Kalitate-kontrol digitalari buruzko irizpideak.
- Ondare digitala babesteko arauak eta politikak.
- Interneten eta beste leku batzuetan ondare digitala babesteko arauak eta politikak.
- ...



## 5. Jarduera-ildoak

### Deskribapena

#### 8. JARDUERA-ILDOA

##### Ondare digitalaren eremuan inguru legala bultzatzea


Ikerlan honetan arauen zailtasunak (oso gai garrantzitsua eta herrialde batzuetan oraindik konpondu gabea) aipatzen hasi bada ere, alderdi arau-emaile eta juridikorik larrienak zehaztea helmugatzat hartzeak oso garrantzi handia du. Horrela, beharrezkoak diren oinarriak pixkanaka ezarriko dira eta gainera, Plan Zuzentzaileak proposatutako erregimen juridikoak definituko dira.

Aldi berean eta ondare digitalarekin erlazionatuta dauden ildoak, arauak eta gomendio teknikoak eta legalak ezartzen ari diren bitartean, gai hauei buruzko informazioa emateko komunikabide bat irekitzea komenigarria da.

## 5. Jarduera-ildoak

### Ildo-helburuen matrizea

Jarduera-ildoek helburuak lortzeko jarraitu behar den bidea zehazten dute. Jarduera batzuk orokorrak diren bitartean, beste batzuek helburu bat bereziki lortu nahi dute:



## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

#### 1. Jarduera-ildoak : KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA

- **P1- Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakundeen arteko mahai bat ezartzea**

Mahai honek digitalizazio-, kudeaketa- eta babes-eremuan sortzen diren lanak hartu behar ditu; bestalde, kudeatzeko behar dituen errekurtoak koordinatu eta kudeatuko ditu. Zehatz-mehatz, Plan Zuzentzaile honen aplikazioaz arduratu beharko du. Mahai hau sortzean, ondare digitaleko tekniko espezialista bat ere izendatuko da, mahaiaren idazkaritza beregain har dezan.

- **P2- Lan-taldeak eta erakundeen arteko foroak martxan jartzea**

Gaiak eta gai bakoitzaren koordinatzailea identifikatzea eta komunikabideei aurkeztea. Lan-taldeak sortuko dira oso gutxi garatu diren ondare digitalaren aldeak iker ditzaten.

- **P3- Beste erakundeekin ondare digitalean trukea eta lankidetzak lortzeko akordioak bultzatzea**

Honen helburuak honako hauek dira: arrakasta lortu duten esperientziak ezagutzea eta interes handiko programetan parte hartzea.

- **P4- Estatuko eta Europako programen finantzazioa lortzea**

Existitzen diren finantzatzeko bide guztiak aprobeztatzeko garrantzi handia du, batez ere Europako mailan.

- **P5- Plan Zuzentzaileari buruzko webgune bat sortzea**

Webgune hau lan egiteko, zabaltzeko eta komunikatzeko erabiliko da.



## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

## 2. Jarduera-ildoak: EREDUAK ETA EGINKIZUNAK

- **P1- Ondare digitala biltzeko eta babesteko eremua ezartzea**

Epe luzera aktibo digitalak babesteko asmoz. Eremu honetan teknologia, estandarrak, euskarri fisikoak, aplikatu behar diren arauak, bideragarritasuna... erabakiko dira.

- **P2- Web babes-politika martxan jartzea**

Web babes-politika zehaztean eta ezartzean datza, babes digitala lortzeko asmoz.

- **P3- Ondare digitalerako sartzeko eta zabaltzeko eredia ezartzea**

Horretarako gauza batzuk zehaztu behar dira, esate baterako: eredia, arkitektura, teknologia, estandarrak, arauak, negozio-ereduak...



## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

### 3. Jarduera-ildoak: ILDOAK

- **P1- Digitalizatzeko estandar tekniko eta katalogazio digitalari buruzko gomendioak sortzea**

Gomendioen gaineko dokumentu bat sortzean datza. Dokumentu honetan aktibo digitalak sortzeko eta katalogatzeko arauak eta estandar teknikoak biltzen dira. Halaber, EAEn ondare digitala kudeatzeko eredia izango da.
- **P2- Ondarea digitalizatzeko gida sortzea**

Minerva proiektua eredutzat hartuta, digitalizazio-proiektuetan jarraitu behar diren pausoak (planifikazioa, jarraipena, kalitate kontrola...) bilduko dira gida honetan.
- **P3- Azpikontratazio digitalerako gida sortzea**

Gida hau oso dokumentu praktikoa izango da eta ondare digitala kudeatzen duten erakundeei hornitzaile teknologikoekiko harremanetan lagunduko die.
- **P4- Artxibo digitalak kudeatzeko eta babesteko jarraitu behar diren pausoei buruzko dokumentua sortzea**

Gure inguruneko artxibo digitalak kudeatzeko erei buruzko oso ikerlan praktikoa egitean datza. Asmoa da aurkitutako praktika onen gaineko dekalogo batekin bukatzea.
- **P5- EAEn babes digitalerako ildoak buruzko dokumentu bat sortzea**

Guru inguruko artxibo digitalak kudeatzeko erei buruzko dokumentu erraza sortzean datza. Dokumentu honetan jarraitu behar diren pausoen gaineko dekalogo aurkituko dugu.

## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

#### 4. Jarduera-ildoak: ONDAREA

- **P1- Euskal erregistro digitala sortzea. EAEn eragileak, proiektuak eta aktibo digitalak**

*Plan Zuzentzailearen ardatzik nagusi* da. Web-orrialdeko edukirik garrantzitsuenetariko bat izango da.

EAEn ondare digitalarekin zerikusia duten eragile, proiektu eta aktibo digital guztien inbentario bat sortzean datza.

Erabilgarritasun bikoitza planteatzen da:

- Barrukoa (Intranet) errekurtso ekonomikoak kontsultatzeko eta kudeatzeko (zer dagoen eta nork erregistratu duen ezagutzea posiblea izango da).
- Publikoa-Irekia, eskura dauden funts digitalak eta non dauden ezagutzeko. Halaber, martxan dauden proiektuak ezagutu ahal izango ditugu.

Proiektu honek bi lan garrantzitsuri erantzuten die:

- a) Beharrezkoa den informazio guztia biltzen den ikerlan bat sortzea.
- b) Kanpoko eta barruko kudeaketa errazten duen sistema batean informazio hau guztia irauli.

Gainera, eduki hauek eta babes-ereduen arteko sinergiak ikasi behar dira. Lan hau betetzeko estruktura berezi bat sortzea gomendatzen da.

## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

#### 4. Jarduera-ildoak: ONDAREA (jarr.)

- **P2- “Euskal Memoria Digitala” proiektuaren garapena**

“Memoria Digitala” Kulturaren Euskal Planean oinarritzen da. Hiru alderdi ditu: a) Memoria hau, funtsak digitalizatzeko, sistematikoki mantentzen duten agenteen koordinazioa; b) Beste aktiboen jabeen digitalizatzeko emandako dirulaguntza; c) Digital jatorriko dokumentuak.

- Prentsa **historikoa** (adibidez: Eskualdunak, Euzkadi).
- Antzinako aldizkarien bildumak.
- Antzinako argazkien bildumak.
- Antzinako planoen bildumak.
- Dokumentu eta bilduma historiko soinudunak eta musikalak.
- Ikus-entzunezko dokumentu eta bilduma historiko soinudunak eta musikalak.
- Sakramentu-erregistroak (antzinako erregistro zibila).
- Notario-protokoloak, batez ere XIX. mendera arte.
- Administrazio Publikoaren aktak (tokikoa eta aldundikoa).
- Interes handiko familiako artxibo pribatuak, batez ere tokiko eremuan (hiri batzuetako garrantzi historikoa duten familiak).
- Orokorrean, garrantzi handiko bilduma monografikoak (artxiboak edo liburutegiak) haien balore testualengatik, linguistikoengatik eta kulturalengatik (adibidez Urquijo, Lacombe, Bonaparte eta abar).
- Digital jatorriko edota digitalizaturiko beste dokumentu eta elementuen bilduma.



## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

#### 4. Jarduera-ildoak: ONDAREA (jarr.)

- **P3- Artxibo administratibo digitalak**

Gero eta dokumentazio digital gehiago egotea arazo larria da. Urte batzuk pasa ondoren, artxibo hauen zati bat euskarri digitaleko ondare dokumentalaren barruan egongo dira.

Artxiboen arduradunek eta Plan Zuzendari honen parte-hartzaileek estrategia komun bat diseinatu behar dute esperientziak trukatzeko eta lan-talde bat sortzeko. Horrela euskarri digitalean dagoen dokumentazioa bizirik irtetea lortuko dute.

- **P4- Eduki digitalak normalizatzeko proiektua**

Gomendio eta estandar digitala eta martxan jarri diren babes-politikak direla eta, definitutako parametroak betetzen ez dituzten aktiboen normalizazioa egin behar izango da. Edukiak berriro digitalizatuak eta katalogatuak izango dira.

## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

### 5. Jarduera-ildoak: SUSTAPENA

- **P1- Jatorri digitaleko euskal kulturaren erakustoki web-a sortzea**

Jatorri digitaleko produktu kulturalak eta artistikoak sustatzeko eta zabaltzeko erakustoki web bat sortzean datza. Normalean, produktu hauek nahiz eta abangoardistak izan, sustapenerako dituzten aukerak oso mugatuak izan ohi dira. Hau, sartaile berriei laguntzeaz gain, kultura-arte digitala trukatzeko gune bat izango da. Beraz, proiektu honetan ahaleginak baliabideak eta plataformak sortzeko erabiliko dira. Edukiak sartaile digitalek jarriko dituzte.

- **P2- Euskaraz jatorri digitaleko kulturaren sormena eta adierazpenerako laguntzen plana**

Berariazko laguntzen bidez, euskal kultura euskarri digitalean sormena sustatzean eta zabaltzean datza.

- **P3- Jatorri digitaleko ekoizpen kulturalak, berritzaileak eta abangoardistak sortzeko sustapen eta laguntza**

Gaur egungo kultura digitalen ataria (J5P1) sortzen den bitartean, eta errekurtsio honi probetxua ateraz, aipatutako ekoizpenak (euskarri digitaleko ekoizpen digitalak) sustatzeko laguntzak eta tresnak sortzean datza.

## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

## 6. Jarduera-ildoak: ZABALKUNDEA

- **P1- EAEn ondare digitala sustatzeko kanpaina bat diseinatzea**

Ondare digitalaren kontzeptua eta bere babesak duen garrantzia ezagutarazteko komunikazio-kanpaina bat diseinatzean datza. Kanpaina hau biztanleei eta erakunde pribatu eta publikoei zuzenduta dago.

Hiru motatako helburuak ditu: sentsibilizatu, laguntzaile eta parte-hartzaileen gunea handitu eta errekurtsio ekonomikoak mugitu.

- **P2- Kultura digitalari buruzko lehenengo euskal kongresua antolatzea**

Euskal ondare digitalaren agenteak eta sektore honen beste erakunde batzuk biltzen dituen ondare digitalari buruzko kongresu baten bidez, kultura digitala sustatzean datza. Helburuak honako hauek dira: interesa duten gaiak zabaltzea, praktika onak ezagutzea eta ondare digitala hobeto kudeatzeko kontaktuak egitea.

## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

## 7. Jarduera-ildoak: PRESTAKUNTZA

- **P1- Ondare digitala kudeatzen duten erakunde txikiek (udaletxe txikiek, liburutegi txikiek...) beharrezkoak diren azpiegiturak eta teknologiak bultzatzea**

Beharrezkoak diren azpiegiturak bultzatzean datza. Honen helburua honako hau da: ondare digitala kudeatzen duten agenteek, baita txikiek ere, haien lana betetzeko behar duten teknologia gertu edukitzea.

Eraginkortasun- eta larritasun-parametroak ezartzea beharrezkoa izango da (eskualdeko zerbitzuen aukera, irizpideen hautaketa).

- **P2- Ondare digitalarekin zerikusia duten diziplina desberdinetako profesionalentzako prestakuntza diseinatzea**

Ondare digitalaren kudeaketan inplikaturik dauden profesionalen artean dauden prestakuntza-beharrei erantzuna emateko ikastaroak eta jarduera hezigarriak egitean datza.

- **P3- Ondare digitalari buruzko eduki espezifikoak, bere alderdi desberdinetan, erlazionatuta dauden hezkuntza-adarretako irakasgaietan sartzeari**

Ondare digitala eta bere alderdi desberdinak heziketa-planetan sartzearan datza, unibertso digitalari gero eta profesional gehiago emateko asmoz. Lehenengo urratsak egiazko egoera ezagutzea eta epe ertainera estrategia bat diseinatzea.

## 5. Jarduera-ildoak

### Identifikatutako proiektuak

## 7. Jarduera-ildoak: PRESTAKUNTZA

- **P4- Kultura digitalaren esparruko enpresa eta erakundeen modernizazio teknologikoa bultzatzea**

Azpiegituren eraberritzea bultzatzean datza, kultura digitalaren esparruko enpresa eta erakundeek beraien jarduera aurrera eramateko baliabide teknologiko egokiak izan ditzaten.



## 8. Jarduera-ildoak: LEGEGINTZA

- **P1- Aktibo digitalei aplikatzeko legezko arautegia lantzea**

Oso ondo egituratuta dagoen arauen multzo bat garatzean datza, Planaren garapena jasateko eta ondare eta unibertso digitalaren kudeaketa ondo antolatzeko. Honi esker bere garapena, babesa eta zabalkundea bermatuko dira.

- **P2- Ondare digitalarekin zerikusia duten alderdi administratibo, juridiko eta arau-emaleei buruzko informazio eta aholkuak emateko kanal bat martxan jartzea**

Komunikatzeko kanal bat ezartzean datza. Kanal honen bidez ondarearen kudeaketa eta plan honen alderdi desberdinen gaineko informazioa emango da.

Plan Zuzentzailearen webguneko arlo espezializatu bat izango da, komunikabiderik garrantzitsuena izanez.

## 6. Plan Zuzentzailea Sarrera



Jarraian, ondare digitalaren Plan Zuzentzailea osatzen duten proiektuak zehatz-mehatz aurkezten dira. Proiektu hauek **2005eko irailetik 2009ko abendura arte** burutuko direla aurreikusten da eta **1.980.000 euroko gastuak** beharrezkoak izateaz gain, Plan Zuzentzailea kudeatzeko ondare digitalean tekniko bat ere kontratatzea beharrezkoa izango da.

Jarduera desberdinetako aurrez ikusitako proiektuak aurrekonturik gabe eta eperik gabe erakusten dira.


Plan honen garapenerako euskal ondare digitalean zuzenean edo zeharka sartuta daude beste erakunde batzuek (foru aldundi, udaletxe, OMA, EJIE eta beste sail eta erakunde batzuek ere bai) parte hartzea komenigarria da.



## 6. Plan Zuzentzailea Proiektuen fitxak

Jarraian, Plan Zuzentzailea osatzen duten proiektuen fitxak aurkezten dira. Fitxa hauetan proiektuei buruzko informaziorik garrantzitsuenak aurki dezakegu: edukia, ekintzak eta betetze-epea.

Fitxa bakoitzean biltzen den informazioa honako hau da:



- A. Jarduera
- B. Proiektuaren kodea eta izenburua
- C. Proiektuaren helburuaren deskribapena
- D. Burutu behar diren ekintzarik nagusienak
- E. Arrakasta lortzeko kontuan hartu behar diren alderdi kritikoak
- F. Betetze-epea: laburra, ertaina edo luzea

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

J1	KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA	LEHENTASUNA	2005 - 2006
J1.P1	<b>Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakundeen arteko mahai bat ezartzea</b>		
DESKRIBAPENA	<p>Hauxe da <b>Planaren ildorik garrantzitsuena</b> eta bere garapenaren bermea. Ondare digitaleko <b>tekniko espezialista</b> bat esleituko zaio. Tekniko hau mahaiaren idazkaria izateaz gain, Planaren gerentea ere izango da.</p> <p>Tekniko honek Plan Zuzentzailearen ekimen guztiak kudeatuko ditu.</p> <p>Mahaiaren osaera erakundeen artekoa izan beharko da eta bere eginkizunak eta aginpideak eratzean ezarriko dira.</p>		
BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estrukturaren diseinua</li> <li>• Atribuzioen definizioa</li> <li>• Planaren eta lan-taldearen animazioa</li> <li>• Proiektuen koordinazioa</li> <li>• Urtero Planaren aurrekontua sartzea</li> <li>• Lan-taldearen proposamena (J1P29)</li> <li>• Emaitzen kontrola</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Kudeatzeko ahalmena eta lan-taldearen animazioa, Plan Zuzentzailearen ekintzak eta proiektuak. Planaren arkitektura eginkorra eta bizia diseinatzea oinarritzko lana izango da. Plan honetan parte hartzen dutenen arteko akordioak lortzeko ahalmena. Aurrekontuak kudeatzea oso elementu garrantzitsua izango da. Erakundearen dirulaguntza eta mezenasgoa [google] aztertu beharko dira.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea Proiektuen fitxak

<b>J1</b>	<b>KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2005- 2006
<b>J1.P2</b>	<b>Lan-taldeak eta erakundeen arteko foroak martxan jartzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Lan konkretuak identifikatzean datza. Lan hauek haien ezaugarriengatik edo helburuarengatik aparte garatu behar dira.</p> <p>Interneteko foroetan oinarritutako lan-taldeen estruktura gomendatzen da.</p> <p>Gerenteak bultzatu eta koordinatuko ditu (J1.P1). Beharrezkoak izango diren instituzioek, erakundeek edo lagunek osatuko dituzte. Gerentearekin lan egiteko arduradun bat izango dute. Talde bakoitzak bere lan egiteko era ezarriko du.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaiak ezagutzea: lanak eta ikerlanak</li> <li>• Taldean parte-hartzaileen konfigurazioa</li> <li>• Taldeko arduraduna izendatzea</li> <li>• Beharrezkoak diren baliabideak ezagutzea eta arduradunaren eskuetan jartzea</li> <li>• Baliabide digitalak ezartzea</li> <li>• Lan egiteko plana eta garatu behar diren produktuak sortzea</li> <li>• Ildoen kudeatzea (J3)</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Helburuak eta lan egiteko egutegia oso argi mugatu behar dira. Agenteen inplikazioa eta emaitzen kontrola.</p> <p>Gai konkretuetatik hastea eta burutu ahal diren helburuak planteatzea gomendatzen da. Planaren eboluzioaren arabera taldeak sortuko dira.</p> <p>Munduko beste talde batzuekin harremanetan egotea oso inportantea da.</p> <p>Plan Zuzentzailearen arkitekturarengatik 2005. urtean bi lan-talde sortu behar dira garapen legalaren arloan (J8.P1) eta ildoak (J3P1), eta Memoria Digitala garatzeko proiektuan (L4.P2).</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J1</b>	<b>KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007- 2009
<b>J1.P3</b>	<b>Beste erakundeekin ondare digitalean trukea eta lankidetzaz lortzeko akordioak bultzatzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Munduan dauden erakunde eta lan-taldeekin lan egiteko bide finakoak eta eraginkorrak sortzean datza.</p> <p>Lan-taldeen estruktura bultzatzea gomendatzen da.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Interesgarriak diren taldeak edo lekuak eta lankidetzarako bideak ezagutzea</li> <li>• Parte hartzeko bide egokia aukeratzea</li> <li>• Kanpoko erakundeekin kontaktua eta parte-hartzea ezartzea</li> <li>• Lan egiteko plana, helburuak eta burutu behar diren produktuak sortu</li> <li>• Kudeatzeko metodoa aukeratu eta ekintza komunikatu</li> <li>• Emaizten kontrola</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Honako gauza hauek garrantzi handia dute: erakundeei lehentasuna emateak, lankidetzarako eta trukearako arloak zehazteak eta egokiena den parte hartzeko bidea aukeratzea.</p> <p>Lehentasan bereizi. Partner-en profila argi eta garbi ezartzea.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J1</b>	<b>KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007- 2009
<b>J1.P4</b>	<b>Estatuko eta Europako programen finantzazioa lortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Helburua honako hau da: estatuko eta Europako ondare digitalarekin zerikusia duten proiektuentzako dirulaguntzak lortzeko bideak bultzatzea.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatuko eta Europako proiektu garrantzitsuak ezagutzea</li> <li>• Erakunde gestoreekin kontaktua mantentzea eta eskaerak formalizatzea</li> <li>• Finantzaketarako proposamenak sortzea</li> <li>• Laneko plana eta helburuak sortzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Unibertso digitalaren agenteen eta beste erakunde batzuen esperimenduak eta praktikak ezagutzea interesgarria izango litzateke. Lobby-ahalmena. Guztien inplikazioa.</p> <p>Beste departamentu batzuen errekurtsoak (Lehendakaritza, Bruselako delegazioa)</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J1</b>	<b>KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2005 - 2006
<b>J1.P5</b>	<b>Plan Zuzentzaileari buruzko webgune bat sortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Helburua honako hau da: planari inguru digitala ematea. Hasieratik, Planak komunikabide bat izatea garrantzitsua da. Kanal honek hiru betebeharrak ditu: a) taldeen barruko lana bideratzea, foroak jasatea b) Ekintzen zabalkundea d) Ondare digitalerako sarrera.</p> <p>Web-a Planaren kanpoko irudia eta zabaltzeko tresnarik nagusiena izango da. webgune honek zerbitzu bereziak ere hartuko ditu ( J1,J6 eta J8).</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plana islatzen duten edukiak diseinatzea</li> <li>• Estructura orokorra sortzea</li> <li>• Barruko eta kanpoko komunikabideak ezartzea</li> <li>• Ondare digitalaren kontsulta-zerbitzuarekin J4 koordinatzea</li> <li>• Laneko plana eta helburuak sortzea</li> <li>• J1P1-ekin edukiak koordinatzea</li> <li>• Webgunea eguneratzea eta mantentzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Plan estrategikoen ekintzak, proposamenak eta aukerak islatzeko estructura sortu. Erabiltzaileentzako informazioa trukatzeko dauden aukera biziak, errazak eta azkarrak diseinatzea. Inguru digital abangoardista sortzea.</p>			



## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J2</b>	<b>EREDUAK ETA EGINKIZUNAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007- 2009
<b>J2.P1</b>	<b>Ondare digitala biltzeko eta babesteko eremua ezartzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Ikerlanaren eta egindako gomendioen arabera EAErentzako babes-eredurik egokiena zehaztuko da. Horretarako ezaugarri funtzionalak, teknikoak, legalak eta ekonomikoak kontuan hartuko dira. Edozein kasutan, sarbide bakarreko ataria gomendatzen da.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Babes-eredua hautaketa eta arduradunak izendatzea</li> <li>• Normalizazio-irizpideak eta babeserako estandarizazioa sortzea</li> <li>• Beharrezkoa den azpiegitura teknologikoa eta ezaugarri teknikoak aztertzea</li> <li>• Eragin ekonomikoari buruzko ikerlana zehaztea</li> <li>• Eredu funtzionala eta ondorio legalak zehazki aztertzea</li> <li>• Ekintza- eta helburu-plana jarduera bakoitzerako sortzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> <li>• Beharrezkoak diren inbertsioak egitea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
Proiektu hau hartuko diren aukeraketara moldatuko da. Funtzionamendu-ereduak esango ditu agente guztien eginkizunak. Borondateko gordagailuan oinarritutako babes-ereduarekin hastea gomendatzen da. Politikoen eta erakundeen arteko adostasuna eta partekatutako finantziarioa.			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J2</b>	<b>EREDUAK ETA EGINKIZUNAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007- 2009
<b>J2.P2</b>	<b>Web babes-politika martxan jartzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Ondare digitala gertaera konkretu eta aipagarri bezala, EAEn aktibo digitalen babesa eta zainketa bultzatzeko sistema martxan jartzean datza. Ezarriko den eredu kontzeptuala eta teknologikoa zehaztea beharrezkoa da, Web aktiboak aukeratzeko, biltzeko eta babesteko sistema batera heltzeko asmoz.</p> <p>Proiektu hau erregistroarekin (J4-P1) koordinatuko da.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Web babes-ereduaren definizioa (web orrialdeak aukeratzeko irizpideak eta hartzeko arduradunak)</li> <li>• Eskatutako eredu teknologikoaren definizioa</li> <li>• Funtzionamendu-eredua ikastea</li> <li>• J3-P5-rekin koordinazioa</li> <li>• Ekintza-plana eta jarduera bakoitzerako helburuak sortzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Ondare web digitala eta bere osagaia babestea babes digitalerako jarraitzen den ereduarekin koordinatu behar da. Dena dela, bakarrik ere egin daiteke.</p> <p>Funtzionamendu-ereduak bakoitzaren betebeharrak ezarriko ditu.</p> <p>Arauegien garapen azkarra.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J2</b>	<b>EREDUAK ETA EGINKIZUNAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007- 2009
<b>J2.P3</b>	<b>Ondare digitalerako sartzeko eta zabaltzeko eredia ezartzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Ondare digitalaren babesaren emaitzen artean zabalkundea eta ondasun kulturala izatea aurkitzen dira. Bi helburu hauek lortzeko eredia ikertzea (arautegia ere kontuan hartu behar da) eta horretarako eskatzen diren elementu guztiak martxan jartzea beharrezkoak dira.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sartzeko eta zabaltzeko ereduaren definizioa</li> <li>• Funtzionatzeko eredia ikastea</li> <li>• Eskatutako eredu teknologikoaren definizioa, babeserako ereduarekin elkar joan dadila</li> <li>• Planaren webgunearen koordinazioa</li> <li>• Ekintza-plana eta jarduera bakoitzerako helburuak sortzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> <li>• Beharrezkoak diren inbertsioak egitea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
Sartzeko eta zabaltzeko eredia kasu batzuetan arautegiaren menpe egongo da. Aipatuko den eredu teknologikoaren definizioa eta aplikazio egokien garapena babeserako azpiegitura teknologikoarekin izan ezik, ondarearen garapenarekin lotuta dauden proiektuekin (aktibo digitalen erregistroa sortzearekin eta memoria digitalarekin batez ere) ere koordinatu behar izango da. Segurtasun legala.			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J3</b>	<b>ILDOAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2005 - 2006
<b>J3.P1</b>	<b>Digitalizatzeko estandar tekniko eta katalogazio digitalari buruzko gomendioak sortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Gomendioen gaineko dokumentu bat sortzean datza. Dokumentu honetan aktibo digitalak sortzeko eta katalogatzeko arauak eta estandar teknikoak biltzen dira. Halaber, EAEn Ondare Digitala kudeatzeko ereduak izango da. Estandar tekniko hauek posibleak diren aktibo (irudi geldia, audio, bideo, eta abar) guztientzat eskainiko dira eta ezaugarri teknikoak izan ezik, katalogatzeko informazioa normalizatua ere kontuan hartuko dituzte.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskura dauden gomendioen azterketa</li> <li>• Garatu behar diren edukiak eta testuaren estruktura aukeratzea</li> <li>• Sartzeko arduradunak izendatzea eta kontratatzea</li> <li>• Dokumentazioa sortzea</li> <li>• Eguneratzeko prozesua sortzea</li> <li>• Zabaltzeko plana sortzea</li> <li>• Ildoen lan-taldeak dokumentua frogatzea</li> <li>• Dokumentazioaren zabalkundea web-orrian</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Esperientzia eta informazio asko dagoenez gero, lehendabizi garrantzi handiko erakundeek egindako lana berrikustea gomendatzen da, berriro gauza bera ez egiteko. Gainera, hau egitekotan, korrante inportanteetan kokatzen dira emandako gomendioei finkotasuna emanez.</p> <p>Metodologia zorrotza eta zehatza ezartzea eta helburuak argi eta garbi definitzea.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J3</b>	<b>ILDOAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2005 - 2006
<b>J3.P2</b>	<b>Ondarea digitalizatzeko gida sortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Digitalizatzeko gida bat sortzean datza. Gida honetan edukiak digitalizatzeko jarraitu behar diren urratsak argi eta garbi biltzen dira. Gida hau batez ere ondarea digitalizatu nahi duten erakunde ertain eta txikientzat izango da eta bai jarraitu behar diren ekintzak, bai oinarrizkoak diren ezaugarriak azalduko ditu. Proiektu hau plangintzarekin eta elementuen hautaketarekin hasiko da, prozesuen ezarpenarekin bukatzeko.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estructura eta dokumentu-formatua sortzea</li> <li>• Sartzeko arduradunak izendatzea eta kontratatzea</li> <li>• Eskura dauden informazio-iturriak aztertzea</li> <li>• Dokumentazioa sortzea</li> <li>• Eguneratzeko prozesua sortzea</li> <li>• Zabaltzeko plana sortzea</li> <li>• Ildoen lan-taldeak dokumentua frogatzea</li> <li>• Dokumentazioaren zabalkundea web-orrian</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>J3-n dauden dokumentu guztiek esaten dutena jarraituz, lan egiteko estructura eta metodologia sortzea funtsezko lana izango da.</p> <p>Existitzen diren gidak aztertzea eta moldatzea (Garrantzi handiko erakundeak editatuak: Minerva-k, IFLAk)</p> <p>Ahal den neurrian gida honetan agertzen diren erreferentziak eta digitalizatzeko eta katalogatzeko estandarrak koordinatu behar dira.</p> <p>Proiektua bi fasetan garatzea: banako lana eta guztien arteko balidazioa.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J3</b>	<b>ILDOAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2005 – 2006
<b>J3.P3</b>	<b>Azpikontratazio digitalerako gida sortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Gida hau oso dokumentu praktikoa izango da eta ondaredigitala kudeatzen duten erakundeei hornitzaile teknologikoekiko harremanetan lagunduko die.</p> <p>Gida honek hornitzaileak aukeratzeko, zuzentzeko eta kontratatzeko praktika onak eta EAEko enpresa eta eskaintako zerbitzuen inbentarioa bildu behar ditu.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estructura eta dokumentu-formatua sortzea eta sartzeko arduradunak izendatzea eta kontratatzea</li> <li>• Eskura dauden informazio-iturriak aztertzea</li> <li>• Hornitzaileen inbentarioa diseinatzea eta egitea. Inbentario honetan eskaintzen dituzten zerbitzuak ere agertuko dira.</li> <li>• Eguneratzeko prozesua sortzea</li> <li>• Zabaltzeko plana sortzea</li> <li>• Ildoen lan-taldeak dokumentua frogatzea</li> <li>• Dokumentazioaren zabalkundea web-orrian</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Merkatua ikasteko lan oso pragmatikoa programatzea.</p> <p>Datuak biltzeko fitxak egiteaz gain, inbentarioa egingo dela komunikatzea gomendatzen da edozein enpresari sartzeko aukera emateko.</p> <p>Halaber, elkarte espezializatuekin harremanetan jarri ahal da, kideei informazioa eman diezaioten.</p> <p>Webgunean gida jartzea eta eguneratzea ezarritako aldizkakotasuna jarraituz.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

J3	ILDOAK	LEHENTASUNA	2005 - 2006
J3.P4	<b>Artxibo digitalak kudeatzeko eta babesteko jarraitu behar diren urratsei buruzko dokumentua sortzea</b>		
DESKRIBAPENA	<p>Webgunean gida jartzea eta eguneratzea ezarritako aldizkakotasuna jarraituz.</p> <p>Proiektu honek unibertso digitaleko agenteak ez diren erakunde publiko eta pribatuetan jartzen du arreta. Erakunde hauek ezaugarri komun bat dute: formatu digitalean informazio ugari daukate eta nahiz eta balio handikoa izan, gaur egun ez dakite nola kudeatu behar duten. Gai honen zailtasuna dela eta, praktika onak eskaini behar dira, hasteko gaiaren kontzientzia lortzeko, eta gero babesteko neurriak aplikatzen hasteko.</p>		
BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estructura eta dokumentu-formatua sortzea</li> <li>• Sartzeko arduradunak izendatzea eta kontratatzea</li> <li>• Gure ingurunearen gaur egungo egoerari buruzko inkestak diseinatzea eta egitea</li> <li>• Eguneratzeko prozesua sortzea</li> <li>• Zabaltzeko plana sortzea</li> <li>• Ildoen lan-taldeak dokumentua frogatzea</li> <li>• Dokumentazioaren zabalkundea web-orrian</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Erakunde adierazgarrien egiazko egoerari buruzko aurretiko ikerlana egitea gomendatzen da, lehentasunezko gaiak ekiteko eta ohizkoa diren arazoei erantzuteko.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J3</b>	<b>ILDOAK</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2005 - 2006
<b>J3.P5</b>	<b>EAEn babes digitalerako ildoetarako buruzko dokumentu bat sortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Dokumentu honetan hartutako babes-politikari erantzuten dioten babes-ildoak bilduko dira (J2-P2). Alde batetik, informazio interesgarria eskainiko du; bestaldetik, ondare digitala kudeatzeko rol bakoitzerako babes-eredutik ateratako arauak eta prozesuak ere aurkituko ditugu. Bai web aktiboentzat, bai gainerako aktibo digitalentzat.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hartzaileei buruzko ikerlan eta edukien aurkibidea sortzea</li> <li>• Edukiak sortzea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Web ildoak</li> <li>• Babes ildoak</li> </ul> </li> <li>• Eguneratzeko prozesua sortzea</li> <li>• Lan egiteko plana sortzea</li> <li>• Zabaltzeko plana sortzea</li> <li>• Ildoen lan-taldeak dokumentua frogatzea</li> <li>• Dokumentazioaren zabalkundea web-orrian</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Ondare digitala eta ondare web-a babesteko eredu eta politika zehazten diren momentuan, dokumentu hau sortuko da; baita martxan jartzeko data ere. Helburua informazioa ematea da, baina publiko orokorrari ondare digitala babesteko politikari buruzko informazioa emango dio, eta parte hartzen duten erakundeei prozesu eta arau konkretuei buruzkoa. Bai bere zabalkundea, bai sortzaile eta arduradun askoren inplikazioa beharrezkoak izango dira.</p>			



## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

J4	ILDOAK	LEHENTASUNA	2007 - 2009
J4.P1	<b>Euskal erregistro digitala sortzea. EAEn eragileak, proiektuak eta aktibo digitalak</b>		
DESKRIBAPENA	<p><b>Plan Zuzentzailearen ardatzik nagusia</b> da. Web-orrialdeko edukirik garrantzitsuenetarikoa bat izango da.</p> <p>EAEn ondare digitalarekin zerikusia duten eragile, proiektu eta aktibo digital guztien inbentario bat sortzean datza. Erabilgarritasun bikoitza planteatzen da: Barrukoa (Intranet) errekurtso ekonomikoak kontsultatzeko eta kudeatzeko (zer dagoen eta nork erregistratu duen ezagutzea posible izango da). Publikoa-lrekia, eskura dauden funts digitalak eta non dauden ezagutzeko. Halaber, martxan dauden proiektuak ezagutu ahal izango ditugu.</p> <p>Proiektu honek bi lan garrantzitsuri erantzuten die: a) Beharrezkoa den informazio guztia biltzen duen ikerlan bat sortzea. b) Kanpoko eta barruko kudeaketa errazten duen sistema batean informazio hau guztia irauli. Gainera, eduki hauek eta babes-ereduen arteko sinergiak ikasi behar dira.</p> <p>Lan hau betetzeko estruktura berezi bat sortzea gomendatzen da.</p>		
BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan-talde espezifiko bat sortzea</li> <li>• Helburuen definizioa</li> <li>• Erregistroaren datu-basea diseinatzea</li> <li>• Jaso behar diren datu eta informazioa ikastea: agente, proiektu eta aktiboei buruz</li> <li>• Webgunearen bidez datuak biltzeko sistema automatizatua diseinatzea eta sortzea</li> <li>• Datuen bilketa automatizatua</li> <li>• Prozesu eta edukien normalizazioa</li> <li>• Erregistroaren gaurkotze-prozesua</li> <li>• Informazioaren bilketa eta sailkapena</li> <li>• Eraitzen analisia eta berrikustea</li> <li>• Komunikazio-plana sortzea</li> <li>• Garapenaren analisia</li> <li>• Erregistroan aurkitzen diren materialen legezko bideragarritasun-txostena</li> </ul>		

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

J4	ONDAREA	LEHENTASUNA	2007 - 2009
J4.P1	<b>Euskal erregistro digitala sortzea. EAEn eragileak, proiektuak eta aktibo digitalak (jarr.)</b>		

#### ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK

Bi alderdi nagusi daude: a) Erregistroaren datuen egitura definitzea (ondasun kulturalaren erregistroekin duten antza balioztatzea oso interesgarria da) b) Datuak sartzeko eta azkar esplotatzeko egitura informatiko normalizatua definitzea. Egitura informatiko malgua eta datu-baseen formatu irekia diseinatzea oinarrizkoa da. Kanpoko eta barruko zabalkundea egiteko oinarria da eta.

Inbentarioa bi fasetan egitea eraginkorrena izango da, ondare digitala ugari eta ezaguna duten unibertso digitaleko agenteekin hasiko da eta gero betetzen joango da. Borondatezko gordailu digitalean erabiltzen diren fitxak hemen erabiltzea aztertu ahal izango da (Adibidez, Erresuma Batua). Proiektu honetan existitzen diren normalizaziorako beharrak detektatu beharko dira; halaber normalizatuta dauden aktiboen inbentarioari lehentasuna eman behar zaio.

Erregistratzen diren agenteei etekinaren bat eskaintzea komenigarria izango litzateke, adibidez barruko erabiltzailearen kode bat, egingo diren komunikazioetan lehentasuna edo dokumentazioa zabaltzeko aukera.

Ezarriko diren arautegi, babes-eredu eta zabalkundearekin koordinatu behar dira.

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J4</b>	<b>ONDAREA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007 - 2009
<b>J4.P2</b>	<b>“Euskal Memoria Digitala” proiektuaren garapena</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>“Memoria Digitala” Kulturaren Euskal Planean oinarritzen da.</p> <p>Hiru alderdi ditu: a) Memoria hau, funtsak digitalizatuz, sistematikoki mantentzen duten agenteen koordinazioa b) Beste aktiboen jabeei digitalizatzeko emandako dirulaguntza c) Digital jatorriko dokumentuak.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epe ertainera eta luzerako helburu eta oinarriari buruzko dokumentu bat sortzea</li> <li>• Laguntzak eta kasuak definitzea</li> <li>• Dirulaguntza eskatzeko formatu bat sortzea</li> <li>• Dirulaguntzaren eskaeraren kudeaketa administratiboa</li> <li>• Webgunearekin koordinazioa</li> <li>• Erregistro digitalarekin koordinazioa</li> <li>• Lehentasunak diseinatzea</li> <li>• Programa barruan digitalizatuak izan diren aktiboen zabalkundea egiteko dauden aukerak ikastea</li> <li>• Beharrezkoa den dokumentazioa sortzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Erakundeen arteko koordinazioa eta digitalizazio-programaren arkitektura egokia oinarritzkoak dira.</p> <p>Dirulaguntzaren programan ezarriko diren ondorioak eta baldintzak ikasteak garrantzi handia izango du (eskaten den estandarizazioa, eduki digitalizatuen geroko zabalkundea), dirulaguntza horien zenbatekoa ezin da ahaztu.</p> <p>Arautegiaren garapenak eta definitutako babes-ereduek ere programa hau baldintzatuko dute.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J4</b>	<b>ONDAREA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007 - 2009
<b>J4.P3</b>	<b>Artxibo administratibo digitalak</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Gero eta dokumentazio digital gehiago egotea arazo larria da. Urte batzuk pasa ondoren, artxibo hauen zati bat euskarri digitaleko ondare dokumentalaren barruan egongo dira.</p> <p>Artxiboen arduradunek eta Plan Zuzentzaile honen parte-hartzaileek estrategia komun bat diseinatu behar dute esperientziak trukatzeko eta lan-talde bat sortzeko. Horrela euskarri digitalean dagoen dokumentazioaren kudeaketa eta iraupena bermatuko dute.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diziplina arteko Lan-talde bat sortzea</li> <li>• Laneko plana lantzea</li> <li>• Plan Zuzentzaileak eremu honetan dituen aginpideak aztertzea</li> <li>• Ildoen lan-taldearekin koordinazioa</li> <li>• Sakabanatuta dauden aktore desberdinen parte-hartzea bideratzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Arlo honetan lan egiten duten artxiboen administrazioaren erakundeekin koordinaziorako inguru egokia sortzea. Alde bakoitzaren aginpideak mugatzea (Administrazio Orokorra, Artxiboen Administrazioa, Plan Zuzentzailea) Azkar lan egitea gomendatzen da, proiektu honekin zerikusia duten alderdiak artxibo askotan landu dira eta.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J4</b>	<b>ONDAREA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J4.P4</b>	<b>Eduki digitalak normalizatzeko proiektua</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Gomendio eta estandar digitala eta martxan jarri diren babes-politikak direla eta, definitutako parametroak betetzen ez dituzten aktiboen normalizazioa egin behar izango da. Edukiak berriro digitalizatuak eta katalogatuak izango dira. Zentzu honetan larrialdi txikiagoa aurreikusten da.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez betetzearen arabera normalizatuta ez dauden edukien identifikazioa eta sailkapena</li> <li>• Normalizatu behar diren elementuei lehentasuna ematea eta kasu bakoitzean burutu behar diren ekintzak</li> <li>• Proiektuaren diseinua</li> <li>• Balorazio ekonomikoa</li> <li>• Normalizazio-prozeduraren definizioa (nork, nola, noiz, non...)</li> <li>• Ekintza-plana egitea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
Erregistroaren (J4-P1) ondorengo proiektua da. Gainera "Memoria Digitala" proiektuaren osagarria da. "Normalizatuak" bezala ezartzen diren estandarren eta ildoen menpe daude. Egoera hauek txikitzen uzten duten sistema teknologiko azkarrak hartzea beharrezkoa da.			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J5</b>	<b>SUSTAPENA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J5.P1</b>	<b>P1- Jatorri digitaleko euskal kulturaren erakustoki web-a sortzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Jatorri digitaleko produktu kulturalak eta artistikoak sustatzeko eta zabaltzeko erakustoki web bat sortzean datza. Normalean, produktu hauek nahiz eta abangoardistak izan, sustapenerako dituzten aukerak oso mugatuak izan ohi dira. Hau sartzaille berriei laguntzeaz gain, kultura-arte digitala trukatzeko gune bat izango da. Beraz, proiektu honetan ahaleginak baliabideak eta plataformak sortzeko erabiliko dira. Edukiak sortzaille digitalek ekarriko dituzte.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburuak, izan litezkeen hartzailleak eta posibleak diren edukiak aztertzea</li> <li>• Edukien iturriak eta erakunde lankideak ikastea</li> <li>• Estandarrak eta aplikatuko diren baldintza teknologikoak definitzea</li> <li>• Atarian jarriko diren zerbitzuak eta edukiak diseinatzea</li> <li>• Web ataria diseinatzea eta sortzea</li> <li>• Laneko plana sortzea</li> <li>• Zabalkunde-plana sortzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> <li>• Erakustokia martxan jartzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Erakustoki hau nork, zer eta nola erabiliko den zehazteak garrantzi handia du, oso leku dinamikoa eta parte hartzekoa izatean datza.</p> <p>Helburu antzekoak garatzen dituzten erakundeekin lankidetzaz bultzatzea garrantzitsua da (gaur egungo kultura eta artearen sustapena).</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J5</b>	<b>SUSTAPENA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J5.P2</b>	<b>Euskaraz jatorri digitaleko kulturaren sormena eta adierazpenerako laguntzen plana</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Berariazko laguntzen bidez, euskal kultura euskarri digitalean sormena sustatzean eta zabaltzean datza.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntza-mota eta kasuak definitzea</li> <li>• Eskaera- eta adjudikazio-prozesua eta laguntzen adjudikazioaren irizpideak definitzea</li> <li>• Programaren zabalkundea</li> <li>• Eskaeraren kudeaketa</li> <li>• Zabalkunde-plana sortzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Hizkuntza politikaren ardura duten erakundeekin koordinazio estua mantentzea. Egiazko eragina ebaluatzea. Ezin da ahaztu hizkuntz normalkuntzako prozesua kultura eremuan nahiko heldua dela. Gainera jakin behar dugu bereizketa positiboaren beharra gai honekin hain sentiberak ez diren beste arlo batzuetan larriagoa izango dela.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J5</b>	<b>SUSTAPENA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J5.P3</b>	<b>Jatorri digitaleko ekoizpen kulturalak, berritzaileak eta abangoardistak sortzeko sustapen eta laguntza</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Gaur egungo kultura digitalen ataria (J5P1) sortzen den bitartean, eta errekurtsu honi probetxua ateratzen, aipatutako ekoizpenak (euskarri digitaleko ekoizpen digitalak) sustatzeko laguntzak eta tresnak sortzean datza.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntza-mota eta kasuak definitzea</li> <li>• Eskaera- eta adjudikazio-prozesua eta laguntzen adjudikazioaren irizpideak definitzea</li> <li>• Beharrezkoa den dokumentazioa sortzea</li> <li>• Programaren zabalkundea</li> <li>• Eskaeraren kudeaketa</li> <li>• Zabalkunde-plana sortzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
Garatuko diren kultura digitalari buruzko edozein webgunetan laguntza hauek bai emaitzen zabalkundearekin, bai babes-estandarrak erabiltzeko <b>baldintzarekin</b> lotu litezke. Ekonomiaren bidez gain, beste bide batzuk ere irekitzea izan daiteke, adibidez museoetan aldi baterako erakusketak, gune espezializatuak...			



## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J6</b>	<b>ZABALKUNDEA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007 - 2009
<b>J6.P1</b>	<b>EAEn ondare digitala sustatzeko kanpaina bat diseinatzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Ondare digitalaren kontzeptua eta bere babesak duen garrantzia ezagutarazteko komunikazio-kanpaina bat diseinatzean datza. Kanpaina hau biztanleei eta erakunde pribatu eta publikoei zuzenduta dago.</p> <p>Hiru motatako helburuak ditu: sentsibilizatu, laguntzaile eta parte-hartzaileen gunea handitu eta errekurtsu ekonomikoak mugitu.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburuak, izan litezkeen hartzailleak eta mezuak definitzea</li> <li>• Kanpainak eta euskarriak diseinatzea</li> <li>• Euskarriak sortzea</li> <li>• Kanpainaren sustapena</li> <li>• Eraginaren-kontrola</li> <li>• Laneko plana sortzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Bai ondare honen balorean, bai babesaren premia biztanleen parte-hartzea nabarmena gogoan hartzen da. Sortzaile asko biztanleak dira eta oso desberdinak diren erakundeetan daude.</p> <p>Kanpaina honen sustapena ildoetako buruzko dokumentazioaren edizioarekin koordinatuko da, dokumentazio praktikara moldatzeko.</p> <p>Prentsa orokorrean iragarki bat argitaratzea kontuan har daiteke. Bestalde, Internet ere euskarri eta zabaltzeko bide bezala erabil daiteke.</p> <p>Kanpaina hau J6-P2-n deskribatzen den kongresua baino lehen antolatu behar da.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J6</b>	<b>ZABALKUNDEA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	<b>2010 - 2015</b>
<b>J6.P2</b>	<b>Kultura digitalari buruzko lehenengo euskal kongresua antolatzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Euskal ondare digitalaren agenteak eta sektore honen beste erakunde batzuk biltzen duen ondare digitalari buruzko kongresu baten bidez, kultura digitala sustatzean datza. Helburuak honako hauek dira: interesa duten gaiak zabaltzea, praktika onak ezagutzea eta ondare digitala hobeto kudeatzeko kontaktuak egitea.</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolatzaile-taldea sortzea</li> <li>• Programa eta parte-hartzaileak definitzea</li> <li>• Kongresuaren diseinu orokorra</li> <li>• Txostengileekin kontaktuak ezartzea eta parte-hartzaileen sailkapena</li> <li>• Kongresuaren antolaketa</li> <li>• Kongresua egitea</li> <li>• Komunikazio-plana lantzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Autofinantzatzea beharrezkoa izango litzakete. Horretarako laguntza eta izena emateagatik kobratzea erabil daitezke. Nazioarteko kongresu bat izan behar du, tratatuko den problematikari dimentsio zientifikoa emateko. Egitura azkarra ezarri behar da eta parte hartzen duten agenteen eskaerak kontuan hartuko dira. Plan honekin batera dauden hiru bide iradokitzen dira: a) teoria bidezko hausnarketa b) praktika onak c) proiektu konkretuak.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J7</b>	<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J7.P1</b>	<b>Ondare digitala kudeatzen duten erakunde txikiek (udaletxe txikiek, liburutegi txikiek...) beharrezkoak diren azpiegiturak eta teknologiak bultzatu</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Beharrezkoak diren azpiegiturak bultzatzean datza. Honen helburua honako hau da: ondare digitala kudeatzen duten agenteek, baita txikiek ere, haien lana betetzeko behar duten teknologia gertu edukitzea.</p> <p>Eraginkortasun- eta larritasun-parametroak ezartzea beharrezkoa izango da (eskualdeko zerbitzuen aukera, irizpideen hautaketa).</p>		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskura dagoen informazioa berrikustea</li> <li>• <i>Digitalizio-gunearen</i> eredua sortzea</li> <li>• Beharrak eta azpiegiturak diagnostikatu eta haiei buruzko mapa bat sortzea</li> <li>• Ezarpenerako egutegi bat sortzea</li> <li>• Laneko plana sortzea</li> <li>• Zabalkunde-plana sortzea</li> <li>• Memoria digitalarekin koordinazioa</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Eskualde bakoitzeko beharrak biltzen dituen mapa bat sortzea funtsezkoa da. Lehentasunak eta egite epeak ezartzea. Zeregin hau eremu desberdinek bultzatu dezakete, trebakuntzak eta hornidura teknologikoak ez diotelako soilik ondare digitalari eragiten. Onuradunen parte-hartze ekonomikoa.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J7</b>	<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J7.P2</b>	<b>Ondare digitalarekin zerikusia duten diziplina desberdinetako profesionalentzako prestakuntza diseinatzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Ondare digitalaren kudeaketan inplikaturik dauden profesionalen artean dauden prestakuntza-beharrei erantzuna emateko ikastaroak eta jarduera hezigarriak egitean datza.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskura dagoen beharrei buruzko informazioa berrikustea</li> <li>• Prestakuntza-plana</li> <li>• Izan daitezkeen parte-hartzaileak identifikatzea</li> <li>• Helburuak, eskatzaileen ezaugarriak eta beharrezkoak diren errekurtsoak analizatzea</li> <li>• Edukiak eta ikastaroen formatua ezartzea</li> <li>• Ikastaroen egutegia</li> <li>• Jarduera hezigarriak diseinatzea eta lehentasuna ematea</li> <li>• Planaren sustapena</li> <li>• Zabalkunde-plana sortzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Agente askori buruzko informazio kuantitatiboa ematen duten elkarte eta agintzen duten agenteen lankidetzaren beharrezkoa da.</p> <p>Prestakuntza iraunkorra izateko bideak sortzea beharrezkoa da.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J7</b>	<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2007 - 2009
<b>J7.P3</b>	<b>Ondare digitalari buruzko eduki espezifikoak, bere alderdi desberdinetan, erlazionatuta dauden hezkuntza-adarretako irakasgaietan sartzea</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Ondare digitala eta bere alderdi desberdinak heziketa-planetan sartzean datza, unibertso digitalari gero eta profesional gehiago emateko asmoz. Lehenengo urratsak egiazko egoera ezagutzea eta epe ertainera estrategia bat diseinatzea.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerikusia duten heziketa-eremuak identifikatzea</li> <li>• Ikasketa-planen barruan egon daitezkeen gaiak identifikatzea</li> <li>• Galdetegi bat sortzea</li> <li>• Erakundeekin harremanetan jartzea eta haien ikasketa-planetan Ondare Digitalen egoera ikastea</li> <li>• Informazioa jaso eta aztertzea</li> <li>• Jarduera hezigarriak diseinatzea eta lehentasuna ematea</li> <li>• Ekintza-plana</li> <li>• Izan daitezkeen edukiak sortzea</li> <li>• Ekintza-planaren sustapena</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
Proiektu honen gauzarik inportanteena honako hau da: profesional berriek dituzten behar digitalak ondo diagnostikatzea.			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J7</b>	<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2008 - 2009
<b>J7.P4</b>	<b>Kultura digitalaren esparruko enpresa eta erakundeen modernizazio teknologikoa bultzatu</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Azpiegituren eraberritzea bultzatzean datza, kultura digitalaren esparruko enpresa eta erakundeek beraien jarduera aurrera eramateko baliabide teknologiko egokiak izan ditzaten. Lehen pausoa, behin digitalizatzeko prozesuaren barnean estandarrak ezarrita, arkitekturaren gutxieneko ezaugarriak definitu beharko dira.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arkitekturaren gutxieneko ezaugarriak definitu beharko dira.</li> <li>• Eraberritze egutegia garatzea</li> <li>• Jokaera plana garatu.</li> <li>• Hedapen plana garatzea</li> <li>• “3. ILDOAK” jarduera-ildoarekin koordinazioa.</li> <li>• Laguntzak banatzea eta lehentasuna ematea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
Proiektuko alorrik garrantzitsuena, arkitektura teknikoaren oinarriko ezaugarrien definizioa eta ondorengo banaketa eta laguntzei lehentasuna ematea da .			

## 6. Plan Zuzentzailea

### Proiektuen fitxak

<b>J8</b>	<b>LEGEGINTZA</b>	<b>LEHENTASUNA</b>	2010 - 2015
<b>J8.P1</b>	<b>Aktibo digitalei aplikatzeko legezko arautegia lantzea.</b>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Oso ondo egituratuta dagoen arauen multzo bat garatzean datza, Planaren garapena jasateko eta ondare eta unibertso digitalaren kudeaketa ondo antolatzeke. Honi esker bere garapena, babesa eta zabalkundea bermatuko dira.		
<b>BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diziplina arteko lan-talde espezifiko bat sortzea</li> <li>• Eskura dagoen arautegia berrikustea</li> <li>• Ildo orokorrak eta arau-emailearen eremuak proposatzea</li> <li>• Jurista adituekin lankidetzatza</li> <li>• Proposamenak jaso eta frogatzea</li> <li>• Kultura Saila kudeaketa orokorraz eta legezkotasunaren izapidez arduratuko da</li> <li>• EHAAn argitaratzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Arauen garapena eskarmentuetan (ez handietan) eta nazioarteko gomendioetan oinarritu behar da. Maximalismo arau-emailea baztertzea gomendatzen da, bide posibilistetara joateko. Hobe da arazoaren alde bateko ikuspegia izatea, osoa tratatu ezin izatea baino.</p> <p>Arauen garapen hau 1990eko Euskal Kultur Ondarearen Legean eta osatzen duten arauetan oinarritzea inportantea da. Azkeneko kalitatea garapen honen oinarriak ezartzen dituen diziplina arteko lan-taldearen menpe egongo da.</p>			

## 6. Plan Zuzentzailea Proiektuen fitxak

J8	LEGEGINTZA	LEHENTASUNA	2010 - 2015
J8-P2	<b>Ondare digitalarekin zerikusia duten alderdi administratibo, juridiko eta arau-emaileei buruzko informazio eta aholkuak emateko kanal bat martxan jartzea</b>		
DESKRIBAPENA	<p>Komunikatzeko kanal bat ezartzean datza. Kanal honen bidez ondarearen kudeaketa eta plan honen alderdi desberdinen gaineko informazioa emango da.</p> <p>Plan Zuzentzailearen webguneko arlo espezializatu bat izango da, komunikabiderik garrantzitsuena izanez.</p>		
BURUTU BEHAR DIREN EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Info-Web bat sortzea eta kontsultarako beste aukera batzuk ikastea</li> <li>• Gaiak diseinatzea eta adituak izendatzea</li> <li>• Beharrezkoak diren baliabideak eta kanalak martxan jartzea</li> <li>• Galdera eta erantzunen datu-base bat sortzea</li> <li>• Zabalkunde-plana lantzea</li> <li>• Kudeatzeko metodoa eta garapen-kontrola aukeratzea</li> </ul>		
<b>ARRAKASTA LORTZEKO GAKOAK</b>			
<p>Kontsultak azkar egiteko bide bat sortzea. E-postari eta foro mugatuei lehentasuna ematea gomendatzen da. Lan-taldearen egituraketa egokitik aurrera, erantzunetarako lan-taldea modu errealista batean diseinatzea. Zerbitzu hau finkatzen den neurrian, ohiko galdera eta erantzunen erregistro bat sortzea posible izango da. Gainera, informatzaileen perfila hobeto definitu ahal izango da, eskaintzen diren komunikazio-kanalak gehitzeko. Plan Zuzentzaileari buruzko webgunea sortu bezain laster, kanal hau martxan jartzea izan liteke, pixkanaka aurrera joateko.</p>			



## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia

Jarrian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiru hilabete zati zati; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009			
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4
<b>J1- KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA</b>																		
P1- Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakundeen arteko mahai bat ezartzea. Ondare digitaleko tekniko espezialista bat izendatzea	60.000	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
P2- Lan-taldeak eta erakundeen arteko foroak martxan jartzea.	30.000	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
P3- Beste erakundeekin ondare digitalean trukea eta lankidetzak lortzeko akordioak bultzatzea	30.000						■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
P4- Estatuko eta Europako programen finantzazioa lortzea	30.000						■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
P5- Plan Zuzentzaileari buruzko webgune bat sortzea	50.000		■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■

## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia

Jarrian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009				
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	
<b>J2- EREDUAK ETA EGINKIZUNAK</b>																			
P1- Ondare digitala biltzeko eta babesteko eremua ezartzea	300.000																		
P2- Web babes-politika martxan jartzea	100.000																		
P3- Ondare digitalerako sortzeko eta zabaltzeko eredia ezartzea	100.000																		

## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia


Jarraian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009				
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	
<b>J3- ILDOAK</b>																			
P1- Digitalizatzeko estandar tekniko eta katalogazio digitalari buruzko gomendioak sortzea	60.000		■																
P2- Ondarea digitalizatzeko gida sortzea	30.000			■															
P3- Azpikontratazio digitalerako gida sortzea	30.000			■															
P4- Artxibo digitalak kudeatzeko eta babesteko jarraitu behar diren pausoei buruzko dokumentua sortzea	30.000		■																
P5- EAEn babes digitalerako ildoetako buruzko dokumentu bat sortzea	15.000				■														

## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia

Jarraian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009			
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4
<b>J4- ONDAREA</b>																		
P1- Euskal erregistro digitala sortzea. EAEn eragileak, proiektuak eta aktibo digitalak	300.000																	
P2- "Euskal Memoria Digitala" proiektuaren garapena	300.000																	
P3- Artxibo administratibo digitalak	300.000																	
P4- Eduki digitalak normalizatzeko proiektua	-																	



2010-2015

## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia

Jarraian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009			
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4
<b>J5- SUSTAPENA</b>																		
P1- Jatorri digitaleko euskal kulturaren erakustoki web-a sortzea	-																	2010-2015
P2- Euskaraz jatorri digitaleko kulturaren sormena eta adierazpenerako laguntzen plana	-																	2010-2015
P3- Jatorri digitaleko ekoizpen kulturalak, berritzaileak eta abangoardistak sortzeko sustapen eta laguntza	-																	2010-2015

## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia

Jarraian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009				
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	
<b>J6- ZABALKUNDEA</b>																			
P1- EAEn ondare digitala sustatzeko kanpaina bat diseinatzea	30.000																		
P2- Kultura digitalari buruzko lehenengo euskal kongresua antolatzea	-																		

2010-2015



## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia


Jarraian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009			
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4
<b>J7- PRESTAKUNTZA</b>																		
P1- Ondare digitala kudeatzen duten erakunde txikiek (udaletxe txikiek, liburutegi txikiek...) beharrezkoak diren azpiegiturak eta teknologiak bultzatu	-																	2010-2015
P2- Ondare digitalarekin zerikusia duten diziplina desberdinetako profesionalentzako prestakuntza diseinatzea	-																	2010-2015
P3- Ondare digitalari buruzko eduki espezifikoak, bere alderdi desberdinetan, erlazionatuta dauden hezkuntza-adarretako irakasgaietan sartzea	60.000																	
P4- Kultura digitalaren esparruko enpresa eta erakundeen azpiegituren eraberritzea bultzatzean datza	125.000																	

## 6. Plan Zuzentzailea Egutegia

Jarraian ikus dezakegun kronogramak Plan Zuzentzaile honetan definitutako jardueren barruan dauden proiektuak martxan jartzeko plangintza biltzen du. Plangintza honek 4 urte eta 3 edo 4 hilabete iraungo du, hiruhilekoetan zatituta; 2005eko irailean hasiko da eta 2009ko abenduan bukatuko da. Halaber, proiektu hauen balioespen ekonomikoa ere aurki dezakegu.

Jarduerak / Proiektuak	euroak	05	2006				2007				2008				2009			
		H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4	H1	H2	H3	H4
<b>J8- LEGEGINTZA</b>																		
P1- Aktibo digitalei aplikatzeko legezko arautegia lantzea	-																	
P2- Ondare digitalarekin zerikusia duten alderdi administratibo, juridiko eta arau-emaileei buruzko informazio eta aholkuak emateko kanal bat martxan jartzea	-																	





## Plan Zuzentzailea martxan jartzea. 2005 - 2006

### DESKRIBAPENA

Plan Zuzentzaileak arrakasta lortzeko orain arte plana egitean parte hartu duten agenteek oso bistaratze azkarra izan behar dute. Gainera, plan hau aurrera joateko haiek aktorerik eta laguntzailerik garrantzitsuenak direla kontuan hartu behar dute.

Plana ondo garatzeko 2005. eta 2006. urteetan burututako jarduera eta bai epe ertainera, bai epe laburrera sortuko diren oinarri sendoak funtsezkoak izango dira.

Plan Zuzentzailea martxan jartzeko gakoak honako hauek dira: diseinu egokia eta Erakunde Zuzentzailea edo Planaren Gestorea ondo hornitzea (botere betearaztea, planifikatzeko aginpidea eta koordinatzeko ahalmena ematea).

### EGUTEGIA

#### 2005 Iraila-abendua

- Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakunde arteko mahaia sortzea
- Lan-taldeak sortzea
- Plan Zuzentzailea garatzeko estrategia orokorra eta finantzazioa diseinatzea

#### 2006

- J3 diseinatzea eta bere garapena martxan jartzea
- Webgunea eta bere egitura definitiboki sortzea
- J4 (batez ere, dirulaguntza aginduak) diseinatzea eta martxan jartzea

### J1P1 Proiektua: Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakundea arteko mahaia sortzea. Ondare digitalean tekniko espezialista bat izendatzea

#### DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK

Proiektu hau Plan Zuzentzailearen ardatz nagusia da. Bere helbururik nagusiena honako hau da: Plan Zuzentzaileak behar dituen eginkizun guztiak koordinatzeko kudeaketa-egitura sortzea da. Hau dela eta, erakunde arteko mahaia osatzeaz gain, Ondare Digitalean tekniko espezialista bat izendatuko da. Bere lana plana kudeatzea izango da.

Lortu nahi duten helbururik nagusiena erakunde-ordezkarri asko lortzea da. Horrela, alde batetik Planak erakundeen eta gizartearen babesa izango du eta bestaldetik, ordezkariek Plana garatzeko gakoak ezagutuko dituzte.

#### 1. Mahaiaren konfigurazioa eta osaketa

- Parte-hartzaileen aurretiko zerrenda bat egitea, beraien profilak ezagutzeko (fundatzailea, gestorea, laguntzailea, gonbidatua, ...)
- Aldizko bileretan parte-hartzaileen zerrenda proposamena eta eztabaida: 2-4 proposamen-bilera; erantzun-proposamen-erantzun. Dena dela, bilera hauek Kultura Saileko barruko bilera batekin hasiko dira, gai-zerrenda eta deitzaileak ezartzeko
- Zerrenda ixtea, karguak izendatzea: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria (gerentea) eta batzordekideak
- Karguak emateko metodoa erabaki: bozketa, txandakakoa...
- Mahaiaren funtzio nagusienak (geroago zehaztuko dira) eta kideek hartutako edo delegatutako konpromisoak definitzea
- Osaketa-akordioaren dokumentua egin eta sinatu

## II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna

### J1P1 Proiektua: Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakunde arteko mahaia sortzea. Ondare digitalean tekniko espezialista bat izendatzea

#### 1. Mahaiaren konfigurazioa eta sorrera (jarraipena)

- Parte hartu ahal duten erakundeen zerrenda:
  - Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila
  - Bizkaiko Foru Aldundia
  - Gipuzkoako Foru Aldundia
  - Arabako Foru Aldundia
  - Bilboko Udala
  - Vitoria-Gasteizko Udala
  - Donostiako Udala
  - EJIE
  - Lantik
  - IZFE
  - CCASA
  - Eusko Jaurlaritza. OMA
  - Beste autonomia-erkidegoetako ordezkariak (gonbidatuak)

#### 2. Plan Zuzentzailearen tekniko gerente bat kontratatu

- Postuaren eta kontratuaren ezaugarriak ezartzea: eginkizunak, iraupena, menpekotasunak, lan-baldintzak...
- Beharrezkoa den profila definitzea: antolaketa- eta koordinazio- gaitasun onak eta komunikatzeko ahalmena. Ezagupen teknologikoak. Hizkuntzak (euskara, gaztelania, ingelesa).
- Kontratazioa eta hautespen-prozesua egingo dituen erakundea zehaztu

## II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna

### J1P1 Proiektua: Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakunde arteko mahaia sortzea. Ondare digitalean tekniko espezialista bat izendatzea

#### 3. Mahaiaren egitura antolatzaile eta eragingarriaren definizioa

Egitura, antolaketa, lan-metodologia (non bildu, noiz, nola...), eginkizun orokorrak... zehaztean datza. Kudeaketa- eta kontrol-erakundeak honako hauek izan litezke:

- Batzorde zuzentzailea: maila goreneko bilerak (bilera inportanteenak)
- Batzorde eragingarria: erakunde betearazlea, arlo-koordinatzaile batzuk ditu Plan Zuzentzailearen proiektuak jarraitzeko.
- Mahaiaren idazkaria: Plan Zuzentzailearen kudeaketa praktikoaz arduratzen da. Kontratazio berrien espezialista da.
- Zuzenbideko arloaren koordinatzailea: kideen zuzenbideko arloekin harremanetan dago, espezialista juridiko-administratiboa da.
- Arlo teknologikoaren koordinatzailea: informatikako elkarte publikoekin harremanetan dago, espezialista teknikoa da.
- Komunikazio- eta zabalkunde-koordinatzailea: kideen komunikazio-arloekin harremanetan dago. Komunikazioan espezialista da.
- Finantziario-koordinatzailea: aurrekontua kudeatzen du eta barruko eta konpoko finantziarioa koordinatzen du. Erakunde arteko eta Europako finantziarioan espezialista da.
- Antolaketa- eta baliabide-koordinatzailea: logistika eta proiektuen baliabideak koordinatu eta kudeatzen ditu. Mahaiaren idazkaria izan liteke (Plan Zuzentzailearen gerentea)

## II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna

### **J1P1 Proiektua: Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakunde arteko mahaia sortzea. Ondare digitalean tekniko espezialista bat izendatzea**

#### **4. Plan Zuzentzailearen proiektuen aldetik mahaiaren atribuzioak, eginkizunak eta lanak**

2005-2009. urteetan burutu behar diren proiektu bakoitzean mahaiak duen papera mugatzean datza. Hala ere, proiektu bakoitzean definitutako eginkizunak eta atribuzioak mahaia osatu ondoren definituko dira.

Mahaiaren edo bere kideen eginkizunak honako hauek izango dira:

- Plan Zuzentzailearen gerentearen lana gainbegiratu
- Aurrekontua eta Plan Zuzentzailearen ildo orokorrak onartu
- Proiektuetan erakundeen parte-hartzea koordinatu eta antolatu
- Proiektuen zuzendariak proposatu eta onartu

Mahaiaren edo bere kideen ikuspuntutik bi proiektu-mota daude:

#### **A) Mahaiak berak edo bere kide batzuek burutuko dituzten proiektuak**

Proiektu hauek orokorrak izango dira eta Plan Zuzentzaile osoarekin zerikusia izango dute. Proiektu hauetan mahaiak jarraian aipatzen diren lanak burutu behar izango ditu:

#### **J1P2- Lan-taldeak eta foroak martxan jartzea**

- Proiektua zuzentzen du
- Taldearen helburua osatzen duten gaiak eta proiektuak proposatu eta onartzen ditu
- Talde edo foroetan parte-hartzaileak proposatzen ditu

## II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna

**J1P1 Proiektua: Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakunde arteko mahaia sortzea. Ondare digitalean tekniko espezialista bat izendatzea.**

### 4. Plan Zuzentzailearen proiektuen aldetik mahaiaren atribuzioak, eginkizunak eta lanak (jarraipena)

#### **J1P2- Lan-taldeak eta foroak martxan jartzea (jarr.)**

- Foroetarako beharrezkoak diren tresnak eta baliabide teknikoak eta eraginkorrak kudeatu eta zuzentzen ditu martxan jartzeko
- Mahaiaren idazkaria foroen webmasterra ere bada
- Taldeen emaitzak jaso eta onartzen ditu
- Taldeen garapena eta lana koordinatzen ditu, sinergiak identifikatzen eta adimenaren trukea sustatzen
- Taldeko bozeramaile bakoitzarekin elkarrizketa bakarria mantentzen du

#### **J1P3- Beste erakundeekin ondare digitalean trukea eta lankidetzak lortzeko akordioak bultzatzea**

- Truke- eta lankidetzak proposamenak proposatu eta jasotzen ditu
- Plan estrategikoko edo bere produktuetako euskarriak eta aurkezpenak errazten dizkiete behar dituzten proiektuei eta taldeei, kanpoko lankidetzak baterako
- Beste erakunde batzuekin (adibidez, beste autonomia-erkidegoko gobernuekin) sortzen diren elkartasunak eta lankidetzak onartzen ditu
- Kanpoko komunikazioa zuzentzen du

#### **J1P4- Estatuko eta Europako programen finantzazioa lortzea**

- Existitzen diren finantziario-iturriak ezagutzen ditu
- Proposamen eta eskaerak koordinatzen ditu eta hauek sortzeko beharrezkoak diren material eta edukiak errazten ditu
- Beharrezkoak diren itzulpenak kudeatzen du

## II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna

**J1P1 Proiektua: Plan Zuzentzailea kudeatzeko erakunde arteko mahaia sortzea. Ondare digitalean tekniko espezialista bat izendatzea.**

### 4. Plan Zuzentzailearen proiektuen aldetik mahaiaren atribuzioak, eginkizunak eta lanak (jarraipena)

#### **J1P5- Plan Zuzentzaileari buruzko webgune bat sortzea**

- Webgunea zuzendu eta kudeatzen du
- Webgunearen edukiak onartzen ditu. Batzuetan mahaiak berak proposatzen ditu eta beste batzuetan talderen batek edo proiekturen batek egiten du proposamena.
- Mahaiaren idazkaria webmasterra ere bada

#### **J6P1- EAEn ondare digitala sustatzeko kanpaina bat diseinatzea**

- Proiektua zuzentzen du
- Kanpaina eta emaitzen kontrola kudeatzen ditu. Proiektua burutzeko beharrezkoak diren baliabideak onartu eta finantzatzen ditu
- Bere emaitzak eta eskakizunak gainditzeko eta zabaltzeko foro egokietara eramaten ditu

#### **B) Lan-taldeek burutuko dituzten proiektuak**

Proiektu hauen edukiak bereziak izango direnez gero, lan-talde espezializatuek zuzenduak izango dira. Arlo honetan Plan Zuzentzailearen beste proiektuak koka daitezke, eta mahaiak edo bere kideen eginkizunak honako hauek dira:

- Proiektuaren sustapenean, hasierako finantziazioan eta arduradunen izendapenean parte hartzea
- Plan Zuzentzailearen beste kideekin proiektuaren betetzea koordinatu
- Proiektuaren emaitza partzialak edo azkenak jaso
- Proiektuen emaitzak eta eskakizunak gainditzeko eta zabaltzeko foro egokietara eraman

## II Eranskina. Hasierako proiektu nagusien zehaztasuna

### J1P2 Proiektua: lan-taldeak eta foroak martxan jartzea

#### DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK

Proiektu honek bertikalki Plan Zuzentzailearen gaiak eta lanak hartzen ditu. Horrela, ikuspuntu tekniko eta eraginkor batetik, Plan Zuzentzailearen lan-taldeak sortzen dira.

Lan-talde eta foroen sorreraren helburua burutuko diren proiektuen eraginkortasuna maximizatzea da, ezagupen bereziak emanez eta lortu behar diren emaitzekin zerikusia duten erakundeak bilduz.

#### 1. Lan-taldeen ezaugarriak eta eginkizunak

- Haien eratzea mahaiak onartu behar du eta taldearen helburuetan interesatuta dauden erakundeek kideak izendatuko dituzte.
- Gaiaren arabera, kanpoko erakundeek eta adituek ere parte hartu ahal izango dute.
- Orokorrean, mahaiak Plan Zuzentzailearen proiektu batzuk onartu eta gero, lan-taldeen eginkizunak proiektu horiek zuzentzea eta koordinatzea izango dira, nahiz eta ikerlan-talde independenteak ere egotea posiblea izen den.
- Beharrezkoa bada, Kanpoko erakundeekiko harremanak bultzatu behar izango ditu. Erakunde batzuk estatukoak izango dira, baina beste batzuk nazioartekoak. (J1P3)
- Koordinatzaile bat izango dute. Bera mahaiaren hizketakide bakarra izango da.
- Taldea osatuta eta irteera-bilera ondoren, laneko plana, lan-metodologia eta lortu behar dituzte emaitzak ezarriko dituzte. Gainera, bai beharrezkoak diren baliabide teknikoak, materialak eta ekonomikoak, bai jarraitzeko eredia deskribatuko dira. Hau guztia irteera-proposamena izango da eta mahaira bidaliko da bere oniritzia emateko.



### J1P2 Proiektua: lan-taldeak eta foroak martxan jartzea

#### 2. Sortu behar diren lan-taldeak

Hasteko, jarraian aipatzen diren proiektuak sortzea proposatzen da. Lan-talde bakoitza parentesien artean ikus ditzakegun proiektuen burua izango da eta noski, bere kudeaketaz arduratuko da:

- Digitalizaio- katalogazio- eta babes-ildoak eta gidak (J3P1, J3P2, J3P3 y J3P5)
- Ondare digitalaren garapena:
  - Memoria digitala (J4P1)
  - Erregistro digitala (J4P2)
- Artxibo digitalen antolakuntza eta kudeaketa:
  - Artxibo administratibo digitalak (J4P3)
  - Kudeatzeko praktika onak (J3P4)
- Eremu legala eta administratiboa (J8P1, J8P2)
- Babesteko ereduak:
  - Babes digitala (J2P1)
  - Web babesa (J2P2)
  - Sortzeko eta ondare Ddgitala zabaltzeko eredia (J2P3)
- Eremu legalean profesionalen prestakuntza (pre-post) (J7P3 eta J7P2 proiekturako oinarriak)

### J1P2 Proiektua: lan-taldeak eta foroak martxan jartzea

#### 3. Lan-taldeen ezaugarriak eta eginkizunak

- Lankidetzarako lan-tresnetan oinarritzen diren komunikazio-plataformak dira. Orokorrean, Plan Zuzentzailearen proiektuetan parte-hartzaileentzako erabilera mugatua izango dute eta Plan Zuzentzailearen gerenteak (Mahaiaren idazkariak) kudeatuko ditu.
- Foroa harremanetan ez dauden pertsonen artean komunikazio- eta informazio-plataformak ezartzeko oso tresna erabilgarria da. Hau dela eta, lan-talde batzuekin zerikusia duten gaietarako egokiak dira, haiei esker informazioa trukatzeko oso erraza da.
- Foroek hiru eginkizun beteko dituzte:
  - Lan-tresna bezala: Plan Zuzentzailearen kideen artean datuak, informazioa eta edukiak trukatzeko.
  - Zabalkunde-tresna bezala: publiko mugatuari eta irekiari (kasuaren arabera) emaitzak ezagutarazteko.
  - Komunikazio-tresna bezala: interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa emateko komunikazio-plataforma mugatua edo irekia izango dira, iritziak, iradokizunak eta informazioa biltzeko.
- Foroen sarbidea plan zuzentzaileari buruzko webgunearen bidez egingo da, sarbide-kontrolak aprobetxatzeko asmoz. Horrela, beste lan-taldeen erabilgarritasun batzuekin osatu ahal dira, esate baterako: kideen orri horiak, agenda banatuak, dokumentu banatuen lekua...

### J1P2 Proiektua: lan-taldeak eta foroak martxan jartzea

#### 4. Sortu behar diren foroak

Hasieran, proposatzen diren foroak honako hauek dira:

- Ondare digitalari buruzko foroa:  
Badagoena aprobetxatuz, interesgarriak diren dokumentuak, gertaeren egutegia eta Plan Zuzentzaileari buruzko iritziak eta iradokizunak trukatzeko gune irekia izango da.
- Ildo eta estandarrei buruzko foroa:  
Ildoek eta estandarrek ia proiektu guztiekin zerikusia dutenez gero, foro horizontal bat sortzea proposatzen da. Foro honetan talde guztiek sarbidea izango dute eta emaitzak erakusteko eta harremanak bultzatzeko erabiliko dute. Halaber, eduki gehiago lortzeko asmoz, adituak gonbidatzeko ere aprobetxatu ahal da.
- Artxibo digitalen kudeaketari buruzko foroa  
Batez ere “Praktika onak” (J3P4) eta “Arxibo administratiboak” (J4P3) proiektuetan kokatuta, lana hobetzen duten ideiak eta eskarmentuak trukatzeko eta ematen diren ondorioak zabaltzeko oso plataforma ona izan daiteke. Lan-taldearen kideentzako eta lana egiten den erakundeentzako mugatua izan daiteke; baina beste erakunde batzuei, esaterako, udaletxeei eta enpresei irekitzeko modua azter daiteke.